



#### 4.4. DIRULAGUNTZA LERROA: "BAI EUSKARARI" ZIURTAGIRIA ESKURATZEA EDO MANTENTZEA – 2025. OINARRI ESPEZIFIKOAK.

##### 1. Dirulaguntzaren xedea

Lerro honen xedea da dirulaguntzak ematea, hain zuzen ere, *Bai Euskarari* ziurtagiria eskuratzeagatik edo mantentzeagatik. Lehiarik gabeko edo elkarren segidako konkurrentziaren bidez (eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak aintzat hartuz, aurrekontu-partida agortu arte) esleituko dira.

##### 2.- Dirulaguntzak zein partidaren kargura egingo diren eta emango diren dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa

Emango diren dirulaguntzen zenbatekoa 2025ko aurrekontuko partidaren kontura izango da:

1030.471.01.335.10 – Dirulaguntzak: "Bai Euskarari" ziurtagiria eskuratzea edo mantentzea; 500 €.

Dagokion kreditu aldaketaren bitartez kopurua handituko balitz, deialdi honi egozgarria izango den gastuaren baimentze berria egin liteke.

Oro har, dirulaguntzaren zenbateko osoa inoiz ez da izango onuradunak bideratu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa, bera bakarrik edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuen dirulaguntzak edo laguntzak batuta.

##### 3.- Pertsona onuradunak, dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta horiek egiaztatzeko era

Oro har, dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Erreterian errotutako pertsona fisiko edo erakunde juridiko pribatuek.

3.1.- Honako baldintzak bete beharko dira:

- *Bai Euskarari* ziurtagiria lortu izana eta dagokion kuota ordaindua edukitzea.

Ezin izango dute dirulaguntzaren onuradun izan Erreterriako Udalak 2025 urtean eta 2025-2026 ikasturtean dirulaguntzak emateko oinarri orokorren laugarren oinarrian jasotakoari jarraiki, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.

##### 4.- Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskatzaileek ERRETERIAKO UDALAK 2025 URTEAN DIRULAGUNTZAK EMATEA



ARAUTZEKO OINARRI OROKORREN seigarren oinarrian adierazitako dokumentazioaz gain, ondorengo ere aurkeztu behar dute eskaerarekin batera:

- a) Eskaria egiten duenak kontu korrante bat ireki duela egiaztatzeko banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako egiaztagiria (baldin eta lehendik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat egon bada).
- b) *Bai Euskarari* ziurtagiria lortu izanaren agiria, edo mantentze ziurtagiria.
- c) Dagokion kuotaren ordainagiria.

Errenteriako Udalak , NISAE datuen bitartekaritza plataforma bidez, deialdian parte hartzeko ondoko datuak egiaztatuko ditu. Aurka eginez gero, deialdian eskatutako ziurtagiriak edo tituluak aurkeztu beharko ditu:

- Poliziaren Zuzendaritza Nagusia – Nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra - Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta
- Foru-ogasunak - Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta

## 5.- Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2025ko maiatzaren 1etik abuztuaren 31ra izango da, biak barne.

## 6.- Dirulaguntzaren zenbatekoa

2025ean *Bai Euskarari* ziurtagaria eskuratzeagatik, dirulaguntzaren zenbatekoa urteko kuotaren % 100 izango da. Ez da diruz lagunduko erakundeko langileei dagokien kuota.

*Bai Euskarari* ziurtagiria aurreko urteetan jaso zutenentzat, dirulaguntzaren zenbatekoa aurtengo urteko kuotaren % 60 izango da. Ez da diruz lagunduko erakundeko langileei dagokien kuota.

## 7.- Dirulaguntza ordaintzea

Dirulaguntzaren ordainketa Udal Hizkuntza Politikako zinegotzi delegatuak dirulaguntzak banatzeko behin betiko ebazpena hartu ondoren egingo da. Ordainketa, dirulaguntza hori lortzeko adierazi zen xedea bete dela egiaztatu ondoren egingo da aldi bakar batean, eskaeran adierazitako kontuan egingo den diru-sarrera bidez. Eskaera guztiak aurkezteko epearen azken egunetik aurrera ebatziko dira.

**Ohar garrantzitsua:** deialdi hau egin da ERRENERIAKO UDALAK 2025 URTEAN

**ERRENERIAKO UDALA**  
Udal Hizkuntza Politika



**AYUNTAMIENTO DE ERRENERIA**  
Política Lingüística Municipal

DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEKO OINARRI OROKORREI jarraiki. Hemen zehaztu gabeko gai orotarako oinarri horietara jo beharko da.